

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Administrazio Kontseiluaren 138/2022 Ebazpena, ekainaren 16koa, 2022. urteko hautaketa-prozesurako deialdia onartzen duena, Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa den Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzuko lan-kontratuko langileak kontratatzeko

Foru Gobernu Kontseiluaren 792/2019 eta 171/2022 Erabakien bidez, adierazitako urteetarako enplegu publikoaren eskaintzak onartu ziren, eta, bertan, hautaketa-prozesuen bidez bete beharreko plazak jasotzen dira.

Erabaki horien arabera, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari dagokio enplegu publikoaren eskaintza garatzea eta dagokion deialdia egitea, hautaketa-prozesuak gauzatzeko. Horretarako, lanpostu bakoitzaren hautaketa-prozesuaren Oinarri Orokorrak eta Espezifikoak onartuko dira, eta horietan lanpostu bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztuko dira.

Hori dela bide, eta Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren eskumenak arautzen dituen foru araudian xedatutakoaren arabera, erakunde horretako zuzendari-gerenteak aipatutako deialdiaren proposamena aurkeztu du, prozesua arautu behar duten oinarri orokorrek eta espezifikoak jasotzen dituen dokumentuarekin batera, onar dadin.

Hori guztia oinarri hartuta, honako erabaki hau hartu da:

EBAZPENA

Lehenengoa. Eranskinean adierazitako plazetarako hautaprobak deitzea, Gazteriaren Foru Erakundeak adierazitako urteetarako enplegu publikoaren eskaintzak onartzeko Foru Gobernu Kontseiluaren 792/2019 eta 171/2022 Erabakietan jasotakoak.

Bigarrena. Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzuko lan-kontratuko langile gisa kontratatzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrek onartzea, I. eranskinean agertzen direnak. Erakunde hori Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa da eta aipatutako plazak arautzen ditu.

Hirugarrena. II. eranskineko oinarri espezifikoak onartzea, bai eta III. eranskineko gai-zerrendak ere.

Laugarrena. ALHAOn dagokion iragarki ofiziala eta Estatuko Alizkari Ofizialean (EAO) iragarkia argitaratzea.

Bosgarrena. Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-gerenteari baimena ematea hura garatzeko behar diren egintza guztietarako.

Seigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpen hau eman duen organo beraren aurrean, hala ezarrita baitago 2015eko urriaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan (Administrazioarekiko Auzien Legea, 1239. artikulua).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 16a

Kultura eta Kirol diputatua
ANA MARIA DEL VAL SANCHO

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari kudeatzailea
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

I. ERANSKINA

Oinarri orokorrak, Gazteriaren Foru Erakundearen (GFE), Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa, zerbitzupeko lan-kontratuko langileak kontratatzeke 2022. urterako hautaketa-prozesuak arautuko dituztenak, 2019. urteko enplegu publikoaren eskaintza onartzen duen Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 10eko 792/2019 Erabakian eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintza onartzen duen martxoaren 20ko 171/2022 Erabakian aurreikusitakoak

1. Xedea

1.1. Oinarri hauen xedea kasuan kasuko oinarri espezifikoetan adieraziko diren Gazteriaren Foru Erakundeari dagozkion plazak hornitzeko arau orokorrak ezartzea da.

1.2. Baldintzaren bat ezarrita daukaten lanpostuak inolaz ere ezin izango dira bete baldintza hori betetzen dutela frogatzen ez duten hautagaiekin.

1.3. Epaimahaiak ezingo ditu hautatu deitutako plaza kopurua baino izangai gehiago; muga hori hausten dituzten proposamenak zuzenbidez baliogabetzat joko dira.

2. Izangaien betekizunak

2.1. Izangaiek hurrengo puntuetan zehazten diren baldintzak beteta eduki behar dituzte eskaerak aurkezteko aldia amaitzen den egunean, eta betetzen jarraitu behar dute esleitzen zaien lanpostuaz jabetzen diren egunera arte.

2.2. Oinarri espezifikoaren bitartez deitutako hautaprobetarako onartzeko hautagaiek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Europar Batasuneko kide den estatu bateko nazionalitatea edukitzea edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz langileen zirkulazio askea onartuta daukan estatu batekoa.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.

Era berean, aurreko paragrafoetara bildu ez diren atzerriko pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta espainiar estatuan modu legalean bizi badira. Hautatuak izanez gero, kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio baimena kontratua gauzatu aurretik eduki beharko dute; nolahi ere, Administrazioarekin duten harremana soilik lan kontratuaren bitartekoa izan ahalko da.

(Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57.4 artikulua).

b) Hamasei urte (16) beteta izatea.

c) Dagozkion funtzioak normaltasunez egitea eragozten duten gaixotasun edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea; nolahi ere, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Legegintzako Dekretua aplikatuko da, desgaitasuna duten pertsonen eta euren inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartu zuena. Hautapen prozesua gainditu ondoren egiaztatuko da gaitasun fisiko eta psikikoa, ziurtagiri edo/eta aitorten medikoz; hautagaia kontratatu ahal izateko betekizun hori bete egin beharko du.

d) Dagokion deialdi espezifikoan eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana. Titulua atzerrikoa izanez gero, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

e) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea herri administrazio, organo konstituzional edo Autonomia Erkidegoetako estatutuen arabeko erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki desgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko, funtzionario kidego edo eskalara sartzeko edo lan kontratudun langileen kasuan, burutzen zituzten antzeko funtzioak betetzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea edukiz gero, ez egotea ezgaituta edo antzeko egoeran, ez eta bere estatuan enplegu publikora sartzea modu berean eragozten duen diziplina zigorren baten edo antzekoren baten mende ere.

f) Indarreko arautegiaren arabera ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege kausaren batean sarturik ez izatea; nolana, bateraezintasuna izanez gero, hautatzeko eskubidea izango du.

g) Oinarri espezifikoean eskatzen diren beste betekizun guztiak.

2.3. Pertsona ezinduak.

a) Gainerako izangaien baldintza berberetan parte hartzen dutela ziurtatzeko, hautaketa prozesuetan probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezarriko dira hala eskatzen duten izangaiarentzat, baldin eta ezintasunak zuzeneko loturarik badu egin beharreko probarekin.

b) Kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileak ebatziko du, ezinduek aurkeztutako agiriak aztertuta, probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko eskaeraren gainean.

3. Eskabideak aurkeztea

3.1. Eskabideak noiz eta nola aurkeztu.

a) Oinarri espezifikoean zehazten diren plazak hornitzeko hautaketa prozesuetan parte hartu nahi dutenek 2022ko irailaren 1etik 30era, biak barne, aurkeztu beharko dute eskaera.

b) Hautapen prozesuetan parte hartzeko eskabidea honela aurkeztu beharko da:

– Internet bidez, identifikazio elektronikoko bitarteko bat erabiliz, web-orrian ematen den eredu bat betez.: www.ivap.euskadi.eus/epe-gfe.

– Eskabidea Internet bidez betetzeko Eusko Jaurlaritzako KZGuneko zentro publikoetara ere jo ahalko da; zentro horien zerrenda helbide honetan kontsulta daiteke: www.kzgunea.net.

Prozesuan onartzeko eskabideak behar bezala eta garaiz bete eta aurkeztuta izan behar dira, eskabideak aurkezteko epearen barruan, aurreikusitako bi modalitateen artean edozein aukeraturik, eta dagozkion inskripzio eskubideak ordaintzea.

3.2. Hautaprobetarako onartuak izateko eta haietan parte hartu ahal izateko, izangaiak eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte. Adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatzen diren betekizun guzti-guztiak, betiere aurkezteko epearen azken egunari erreparatuta, 7.3.1 eta 7.4.2 oinarrietan euskara eta informatika probetarako jasotzen den salbuespen kasuan izan ezik.

Halaber, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoei jarri ahalko dute eskaera aurkezteko finkatutako epearen amaiera ez den beste egun bat.

Horretarako, eskaerako atal egokietan adierazita egon beharko dira:

a) Eskatzen diren datu pertsonalak.

b) Zer plazararako lehiatu nahi den.

c) Oposizio faseko ariketak zer hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, euskaraz ala gaztelaniaz.

d) Hizkuntza eskakizunak egiaztatze euskaraz ariketa egiteko hautua.

3.3. Ezinduek ezintasun gradua kalifikatzen duen organo teknikoak egindako irizpen tekniko fakultatiboa aurkeztu beharko dute eskaerak aurkezteko epearen barruan eta horretarako prestatutako instalazioetan, Landazuri kaleko 3. behealdean, 01008 Vitoria-Gasteiz, aitortutako minusbaliotasun-maila eragin duten kausa iraunkorrak modu frogagarrian egiaztatuz.

3.4. Datu pertsonalak babesteko arloan existitzen den araudia betez, hautapen prozesuak kudeatzean jasotako datuak Gazteriaren Foru Erakundeak kudeatzen duen "Enplegu Publikoaren Eskaintza" tratamendu jardueran sartuko dira. Tratamenduaren arduraduna Gazteriaren Foru Erakundea izango da eta datuak kontsultatu, zuzendu, baliogabetu edota horien aurka egiteko eskubideak erakunde horren bulegoan baliatu ahalko dira, Gasteizko Joaquín José Landazuri kaleko 3. zenbakiko behealdean.

Hautaketa prozesuetan parte hartzen dutenek baimen espresa ematen dute, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazitako moduan eta xederako tratatzeko.

Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak: Langileak hautatzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra behar dituen zerbitzuen beharizanean erantzuteko, baita eskatzaileari horien garapenaren berri emateko ere; hain zuzen ere, parte hartzeko eskabideak kudeatzea, probak ezinduentzat egokitzeko eskaerak kudeatzea, onartuen eta baztertuen zerrendak, proben kalifikazioak eta merezimenduen balorazioak argitaratzea, hautaketa-prozesuekin lotutako erreklamazio eta errekursoak kudeatzea, eskatzaileek prozesuan ekarritako dokumentazioa kudeatzea, probetako asistentzia kontrolatzea, ziurtagiriak luzatzea, prozesuen datu historikoak kontsultatzea, azterketak eta estatistikak egitea, lan-poltsak kudeatzea.

Legitimazioa: Interesdunak emandako adostasuna.

Informazioaren hartzaileak: Datuen tratamendua Gazteriaren Foru Erakundeak egitea aurreikusten da, kasuan kasuko lan-poltsak kudeatzeko eta langileen kudeaketa osoa burutzeko xedez.

3.5. Nola tratatuko diren jokabide iruzurgilea eta lehia desleiala.

Izangaiak, ez pertsonalki, ez hirugarrenen bidez, ezingo dira zuzendu Epaimahai Kalifikatzaileko kideengana, hautapen prozesuarekin lotutako ezeri buruz hitz egiteko. Hautapen prozesuaren inguruko zalantzak sortuz gero, idatziz planteatu behar zaizkio Epaimahai Kalifikatzaileari, eta honek, kide anitzeko organoa denez, dagokiona erabakiko du.

Epaimahaiak hautapen prozeduratik kanpo utzi ahal izango du probetako edozeinen garapen normala eragozten duen edo berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioekin bat leialtasunik gabe jokatzea eragiten duen iruzurrezko edozein jarduera burutzen duen pertsona oro, jokaera hori jasota lagaz, dagokion bilkurako aktan.

Era berean, ez da onartuko hautapen prozesuko inolako probatan zehar dispositibo edo bitarteko elektronikorik edukitzea edo erabiltzea, tresna horiek lehen aipatutako printzipioak saihestu edo urratzeko erabil daitezkeenean.

Izangai batek arau horiek urratzen baditu, une horretan bertan geratuko da kasuan kasuko probatik zein hautapen prozesutik kanpo, eta, horrenbestez, ez da inola ere prozesu horretatik ateratzen den lan-poltsan sartuko.

4. Izangaiak onartzea. Erreklamazioak

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, Kultura eta Kirol foru sailburuak, gehienez hilabeteko epean, ebazpena emango du; horren bitartez onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoien berri ere emango du. Ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da.

Baztertutako hautagaiek eta argitaratutako datuetan okerren bat ikusten dutenek hamar egun baldioduneko epealdia edukiko dute behin-behineko zerrendak ALHAOn argitaratzen denetik aurrera erreklamazioak egiteko edo okerrak zuzen daitezela eskatzeko.

4.2. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, eta ebatzi eta gero, Kultura eta Kirol Foru sailburuak onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak onetsiko dituen ebazpena emango du; behin-behineko zerrendetan jasotako datu berberak zehaztuko ditu; ALHAOn argitaratuko dira.

4.3. Ebazpen horiek, bidenabar, www.ivap.euskadi.eus/epe-gfe enplegu atarian ere plazaratuko dira.

4.4. Probak egiten diren egunean oraindik ebatzi gabe badaude onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko ebazpenean prozesutik baztertuta agertu ziren izangaiek aurkeztutako errekursoak, eragindako pertsonen proba horiek egin ahal izango dituzte, baina ez dute baliorik izango errekurso horiek ezesten badira.

4.5. Edonola ere, interesdunek hautaprobetarako eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzeko baldintza da haiek egiaztatzea 8. oinarriaren arabera aurkeztu behar diren agiriak aurkeztuta; agiriaren bidez egiaztatu ezean, interesdunak galdu egingo ditu hautaprobaren parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak.

5. Epaimahai kalifikatzailea

5.1. Kultura eta Kirol foru sailburuaren ebazpenaren bitartez, epaimahaiko kideak eta ordezkariak izendatuko dira. Izendapena pertsona onartu eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera jakinaraziko da.

5.2. Osaera:

Dei egindako plazak hornitzeko izangaien hautaketa epaituko duten epaimahaien osaera orekatua izango da, sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkari izanik, nola eta ez den behar bezala justifikatzen hala ez dagokiola.

Epaimahaiek lehendakari bat eta lau kide izango dituzte, bakoitza bere ordezkarekin, eta karrerako funtzionarioak edo langile lan kontratadun finkoak izango dira. Kideetako bat idazkari izendatuko dute. Halaber, kideetako bat Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatuko du.

Epaimahaietako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Epaimahaiak osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahai bakoitzeko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar baitute, eta guztiek ikasketa maila bereko edo goragoko titulu bat.

Aipatutako lehendakari eta kide postuak betetzen dituzten pertsonen gain, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ordezkari bat epaimahai kalifikatzaileen parte izango da soilik eskatutako edo deialdi bakoitzean aztertutako hizkuntza eskakizunak ziurtatzeko probak egin eta ebaluatzeko.

Epaimahaiak hala komeni dela baderitza, aholkulari espezialisten laguntza edukiko dute epaimahaikideek. Aholkulari horiek, organo kalifikatzaileari laguntzean, beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

5.3. Prozeduran parte ez hartzea eta errefusatzea:

Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta aginte deitzaileari jakinarazi beharko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren batean daudenean.

Halaber, inguruabar horietako bat gertatuz gero, interesdunek noiznahi errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aurrean aipatutako legeak 24. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

Epaimahaia oinarri orokor hauen eta kalifikatu beharreko probei dagokien hautapen prozesua arautuko duten oinarri espezifikoaren mende egongo da.

5.4. Jarduteko arauak:

Epaimahaiaren jarduna urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauetara egokituko da. Edonola ere, hautaprobak hasi aurretik eta garaiz bilduko dira, lehendakariaren aginduz idazkariak bilera deia eginda, eta, behar bezala eratzeko, lehendakaria eta idazkaria, edo horien ordezkariak, eta kideen erdiek bildu behar dira, gutxienez.

Erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

Lehendakaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, maila, antzintasun eta adin handiena duen epaimahaikideak ordeztuko du, betiere ordena horretan.

Idazkari titularren edo beraren ordezkorearen kargua hutsik badago, bertarutzen ez bada, gaixorik badago edo legezko arrazoiren bategatik bilerara azaltzen ez bada, beste epaimahai-kideetako batek jardungo du haren ordeze, hain zuzen ere gehiengoaren erabakiaren bidez hautatzen dutenak.

5.5. Ahalmenak:

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legezotasuna zainduko du eta objektibotasuna bermatzeko ardura izango du.

2.3.a) oinarrian ezartzen denaren arabera probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko aurkeztu diren eskaerak epaimahaiak ebatziko dituzte, desgaituek aurkeztutako agiriak aztertu ondoren.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat, batetik, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, behar diren irizpideak ezarriko ditu oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako.

Epaimahaiko lehendakariak beharrezko neurriak hartuko ditu oposizio aldiko ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko eta izangaien nortasuna jakin gabe zuzentzeko.

5.6. Komunikazio eta gainerako gorabehereri dagokienez, epaimahai kalifikatzaileak Gazteriaren Foru Erakundearen bertan izango du egoitza, Gasteizko Joaquín José Landazuri kaleko 3. zenbakiaren behealdean.

6. Deialdiak, jakinarazpenak eta informazioa

6.1. Hautaprobak ez dira hasiko eskaerak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabete baino lehen.

6.2. Oposizio fasea eratuko duten ariketen artean, 7.2.1 oinarriaren arabera, lehenengoa, edo bakarra bere lekuan, egiteko deialdia ALHAOn argitaratuz egingo da.

Hautapen prozeduratik eratorritako gainerako komunikazioak eta jakinarazpenak www.ivap.euskadi.eus/epe-gfe Internet helbidean argitaratuko dira.

6.3. Deialdien informazio orokorra hemen dago, interesdunen eskura:

- Internet: www.ivap.euskadi.eus/epe-gfe.
- Gazteriaren Foru Erakundea, Joaquín José Landazuri kalea, 3 behea, Gasteiz.

7. Hautapen prozedura

7.1. Hautaketa-prozedura orokorra oposizio-lehiaketa izango da, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek ezartzen dutenaren arabera eta Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 10eko 792/2019 Erabakian (2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen duena) eta Foru Gobernuaren Kontseiluaren martxoaren 22ko 117/2022 Erabakian (2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen duena) ezarritakoarekin bat etorritik.

7.2. Oposizio aldiko ariketak:

7.2.1. Oposizio aldiak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten diren ariketak izango ditu.

7.2.2. Lehenengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua ALHAOn argitaratuko dira.

7.2.3. Izangaiak deialdi bakarrean deituko dira ariketa bakoitzerako. identifikaziorako, izangaiak probetara agiri hauetakoren batekin joango dira: NANA, pasaportearen edo gidabaimena, edo agiri baliokidea atzeritarren kasuan.

7.2.4. Epaimahai kalifikatzaileek ariketak egiteko denbora eta bitartekoak izangai ezinduen beharrezanetara moldatuko dituzte, eskaeran horren berri eman eta moldatzeko eskatzen badute, hain zuzen, gainerako izangai guztien aukera berak eduki ditzaten, baina egokitzapen horrek ezin du hutsaldu probaren edukia eta ezin du jaitzi ez murriztu eskatzen den gaitasun maila.

7.2.5. Ariketa bat erabat bukatzen denetik hurrengo hasi arte gutxienez hirurogeita hamabi ordu eta gehienez berrogeita bost egun natural igaro beharko dira. Hala ere, epaimahaiak oposizio faseko lehen eta bigarren ariketa batera egitea zehaztu ahalko du.

7.2.6. Izangai guztiek batera egin ezin ditzaketan ariketetan, jarduteko ordena Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzak egiten duen zozketaren arabera izango da, bat etorritik martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak, langileak Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra onartzen duenak, 17. artikuluan ezarritakoarekin.

Izangaien artean ez badago inor lehenengo abizena zozketa horretan atera den letratik hasten zaiona, jarduteko ordena segidako hurrengo letren arabera izango da, dagokion moduan.

7.2.7. Oposizio aldiko probak zuzendu ondoren, fase horretan gauden izangaien behin-behineko zerrendak argitaratuko dira, eta erreklamazioak aurkezteko hamar egun baliaduneko epea zabalduko da. Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak ariketa bakoitzeko behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.

7.3. Euskara:

Edozein plazarara sartzeko, dagokion hizkuntza eskakizunak ez badauka derrigortasun datarik, euskara jakitea baloratu beharreko merezimendu gisa hartuko da 7.4 oinarrian jasota dagoen lehiaketa aldiaren, eta balorazio hori, egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren mailaren arabera, hautaketa prozesu osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gainerakoaren ehuneko handiagoa edo txikiagoa izan daiteke. Deialdi bakoitzaren oinarrietan zehaztuko da ehuneko hori.

7.3.1. Euskara ariketa:

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egingo dira, eta nahitaezkoak izango dira derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna duten plazararako lehiatzen direnentzat eta borondatezkoak derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna dutenentzako lehiatzen direnentzat.

7.3.2. Hizkuntza eskakizunak ziurtatzeko moduak:

a) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) hizkuntza eskakizuna edo beste edozein ziurtagiri baliokide daukaten izangaiak.

IVAPek, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE), Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomoak (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikia, berezko nortasun juridikoa eta Eusko Legebiltzarraren 29/1983 Legearen bidez sortua), Euskal Osasun Zerbitzuak (Osakidetza) edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiriak edo tituluak dituzten pertsonak aplikazio horretan bertan egiaztatu ahal izango dute beren jabetza. Horretarako, izenburua online egiaztatu beharko dute. Sistemak dagokion erregistroan jasotako informazioa egiaztatuko du, eta eskabideari gehituko dio.

Aurreko paragrafoan aipatutako ez beste euskara ezagutzaren titulu eta ziurtagiriak dituzten pertsonak eta tituluak online egiaztatu ez dutenek edo ondoren lortzen dituztenek titulua edo ziurtagiria euskara ariketa egin baino lehen aurkeztu beharko dute.

b) 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza eskakizuneko azterketa egin beharretik salbuetsitako pertsonak, ikasketak erabat edo partzialki euskaraz egiteagatik.

Pertsona horiek ikasketak bukatu dituzten unibertsitate edo zentroak emandako ziurtagiriaren kopia eskabidean gaineratu beharko dute, euskara ariketa egin behar den data baino lehen.

c) Eskabidea aurkezteko unean dokumentazioa daukatenez eskabidean bertan adierazi ahalko dute, eta dagokion agiria formatu digitalean atxiki ahalko dute.

7.3.3. Hizkuntz eskakizunak egiaztatzea:

Hizkuntza eskakizunak honako agiri hauen bidez egiaztatu ahal izango dira (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, 2010eko azaroaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 219. zenbakia):

a) 3. hizkuntza eskakizuna (HE):

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, hautagaiak 3. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta daukala dioena.

- Osakidetzaren ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo gehiagokoa egiaztatuta daukala dioena.

- HABEren 3. mailako ziurtagiria, edo goragokoa.

- Euskara ezagutza egiaztatzeko EGA ziurtagiria eta baliokideak (263/1998 Dekretua, urriaren 6koa, 1998ko urriaren 23ko 202. EHAA).

- Ertzaintzako HE2.

- Irakaskuntzako HE2.

- Hizkuntza eskola ofizialetako gaitasun agiria edo 5. mailako ziurtagiria (ikasketa plan zaharrean).

- Hizkuntza eskola ofizialetako C1 gaitasun maila.

- Euskaltzaindiaren D agiria.

b) 2. hizkuntza eskakizuna:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, hautagaiak 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta daukala dioena.

- Osakidetzaren ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna edo gehiagokoa egiaztatuta daukala dioena.

- HABEren 2. mailako ziurtagiria, edo goragokoa.

- Ertzaintzako HE1.

- Irakaskuntzako HE1.

- Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.

- Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako 4. maila (ikasketa plan zaharrean).

- Hizkuntza eskola ofizialetako maila aurreratua.

c) 1. hizkuntza eskakizuna:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, hautagaiak 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta daukala dioena.

- Osakidetzaren ziurtagiria, hautagaiak 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta daukala dioena.

- HABEren 1. mailako ziurtagiria, edo goragokoa.

- Hizkuntza eskola ofizialeko euskarako 3. maila (ikasketa plan zaharrean).
- Hizkuntza eskola ofizialeko erdiko maila.

Epaimahai kalifikatzaileak IVAPekin adostuko du euskara ariketa egiteko data, erakunde horren deialdien testuinguruan; nolahi ere, oposizio fasea garatzen den bitartean izan behar da.

Behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek hamar egun baliodun izango dituzte euskara ariketaren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak Gazteriaren Foru Erakundeko bulegoetan aurkeztuko dira, Joaquín José Landazuri 3-behea, Gasteiz, VIII. Eranskinaren inprimakiaren bidez.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak euskara ariketako behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.

7.4. Lehiaketa fasea:

Lehiaketa aldia izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratzeko da, eta haietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, deialdian zehaztutako baremoaren arabera.

7.4.1. Akreditazio epea: Oposizio fasea gainditzen duten izangaiei behin betiko zerrendak argitaratu ondoren, 7.2.7 puntuan aipatutakoa, hamar egun balioduneko epea zabalduko da eta ariketa biak gainditutako izangaiek VI. Eranskinaren inprimakia eta merezimenduen ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte baliabide hauen bitartez:

– Aurrez aurre Gazteriaren Foru Erakundeko bulegoetan, Joaquín José Landazuri kalea, 3 behea, Gasteiz.

– Dokumentazioa eskaneatu eta Interneten bidez ere bidali ahal da enplegu publikoko atariaren bitartez (www.ivap.euskadi.eus/epe-gfe), epe berean.

Finkatutako epe barruan justifikatu eta argudiatutako merezimendu ez beste batzuk ez dira balorazioan sartuko. Soilik zenbatuko dira eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte lortutako merezimenduak.

Lehendakariak zehaztutako egun eta orduan, hautagaiek azaldutako merezimenduen ziurtagiriak aztertuko ditu dagokion epaimahaiak; deialdi espezifikoetan ezarritako baremoen arabera baloratuko dira.

Lehiaketa fasean ez da inor baztertuko, eta hautagaiek lortzen dituzten puntuak ez dira kontuan hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

Alde batera utzita euskara eta informatika ezagutzen gainean ezarritakoa, hurrenez hurren 7.3.1, 7.3.2 eta 7.4.2 oinarrietan, gainerako merezimenduak soilik konputatuko dira eskaerak egiteko epeko azken egunari erreparatuta.

7.4.2. Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan hala jasota badago, eta ezartzen diren baremoen arabera, haietan finkatzen diren informatika ezagutzen mailak egiaztatzea merezimendu gisa baloratuko da, Informazio Gizartearen Euskadi Planak KZgune zentro publikoetan eskura jartzen dituen moduluak eskuratzeko probak gaindituta.

Modulu horiek gainditu izana ITXartelaren ziurtagiaren bidez egiaztatuko da.

Informatika ezagutzak onartzeko eta ebaluatzeko erreferentziatzeko data merezimenduak egiaztatzeko 7.4.1. atalean ezarritako hamar egun balioduneko epearen azken eguna da.

– European Software Institute erakundeko (ESI) erregistroetara sarbidea izatea baimentzea:

Hala nahi duten pertsonak epaimahaiari berariazko baimena ematea adierazi ahalko dute eskabidean, aurkeztutako alegazioaren zehaztasuna egiaztatu ahal izateko erregistroetara sarbidea izan dezan; egiaztatu beharretik salbuetsita egongo dira. Baimena ematen ez dutenek ezagutza horiek agiri bidez frogatu beharko dituzte oinarri honetan ezarritako epeetan.

– IT-Txartelaren ziurtagiria lortzea:

Ziurtatze probara sarbidea izateko zentro egiaztatu batean izena eman beharko da. Zentroyen zerrenda osoa helbide elektronikoa honetan kontsultatu daiteke: www.it-txartela.net.

Inskripzioa hemen egin daiteke: www.it-txartela.net.

7.4.3. Gazteriaren Foru Erakundearen emandako zerbitzuen denbora azaldu egin beharko da, baina interesdunek ez dute egiaztatu beharko. Aipatutako erakundeak ofizioski zenbatuko ditu.

Gainerako administrazio publiko eskaintako zerbitzuen denbora bakoitzak horretarako ezarritako ereduaren arabera ziurtatuko da, lan egindako aldiak banakatuz eta tarte horiei dagokien talde eta kategoria zehaztuz.

Emandako zerbitzuen zenbatekoa kalkulatu da formula hau aplikatuta: esperientzia atalaren barruan emandako eta alegatutako zerbitzuen egun osoak batuko dira, kopuru hori zati 365 egingo da, eta horren emaitza bider 12. Eragiketa horren emaitza, behin dezimalak baztertu ondoren, kasuan kasuko atalean hilabete osoari esleitutako balioari aplikatuko zaio.

Denboran bat egiten duten emandako zerbitzuak baztergarriak dira beren artean.

Deialdi edo praktikaldi bakoitzean eskatzen den titulua lortzeko prestakuntza aldia ezin izango da balioetsi, inola ere, emandako zerbitzu gisa.

7.5. Hautaprobak kalifikazioa.

Oposizio aldiko ariketak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoean xedatzen denaren arabera kalifikatuko dira.

Lehiaketa aldiko merezimenduen balorazioa deialdiaren oinarri espezifikoean jasotako baremoen arabera esleitutako puntu batura izango da.

Prozesuko kanporaketa probak gainditu dituen hautagai bakoitzaren azken kalifikazioan lortutako emaitza lehiaketa fasean, oposizio fasean eta euskara azterketan lortutako puntuazioak batzearen emaitza izango da, puntuazioaren behin betiko ordena zehaztuz.

Berdinketarik gertatuz gero, ondoko irizpideek zehaztuko dute ordena:

1. Oposizio aldiaren puntuaziorik handiena lortu duenaren alde egingo da.
2. Oposizio aldiko proba praktikoan puntu gehien lortu duenaren alde egingo da.
3. Oposizio aldiko proba teorikoan puntu gehien lortu duenaren alde egingo da.
4. Lehiaketa aldiaren puntuaziorik handiena lortu duenaren alde egingo da.
5. Lehiaketa aldiaren aintzat hartutako zerbitzuetan denbora gehien egin duela egiaztatu duenaren alde egingo da.

7.6. Onartutako eta hautatutako langileen zerrenda.

7.6.1. Ariketen merezimendu eta kalifikazioen balorazioa bukatu ondoren, epaimahaiak behin-behineko onartutako izangaien zerrenda www.ivap.euskadi.eus/epe-gfe enplegu atarian argitaratuko du, azken puntuazio ordenaren arabera. Behin-behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek hamar egun baliodun (10) izango dituzte erreklamazioak aurkezteko.

7.6.2. Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak gainditu dutenen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua emango du, azken puntuazio ordenaren arabera, eta Foru Erakundearen lehendakariari helaraziko dio eskainitako plaza kopuruaren eta puntuazio hurrenkeraren arabera hautatutako pertsonaren edo pertsonen kontratazio proposamen bat.

Aurkeztutako izangaien artean inork ez baditu kanporaketa probak gainditzen, epaimahaiak deialdia eman gabe uztea xedatuko du.

8. Dokumentazioa aurkeztea

Administrazio kontseiluko lehendakaritzaren ebazpenaren bitartez, behin betiko hautatutakoak kontratatzeko proposamena egingo da.

Proposatutako pertsonak VII. Eranskinaren inprimakia eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du Gazteriaren Foru Erakundearen, Gasteizko Joaquín José Landazuri kaleko 3. zenbakiko behealdean, 20 egun naturaleko epean kontratazio proposamenaren ebazpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita:

a) NANaren fotokopia konpultsatua.

b) Izangai atzerritarrek Gazteriaren Foru Erakundearen jakinarazpen bat jasoko dute, non zehaztuko baita, duten egoeraren arabera, zer agiri aurkeztu behar duten nahitaez.

c) Zinpeko aitortpena, adieraziz ezen ez dagoela ezgaitua eginkizun publikoetan jarduteko, ez dela baztertua izan Estatuaren, autonomia erkidegoen edo Toki Administrazioaren zerbitzutik diziiplina espediente baten bidez, eta ez dagoela sartuta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunenak, jasotzen dituen eta bateraezintasuna dakarten egoeretako batean.

d) Gazteriaren Foru Erakundeak Osasuna Zaintzeko Zerbitzuak emandako ziurtagiri medikoa, karguari dagozkion funtzioak garatzea eragozten duten gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea ziurtatzen duena. Izangai ezinduek, horrez gain, eskatutako postuei dagozkien berezko funtzioak egiteko gaitasuna daukatela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, zerbitzu berak emandakoa. Ziurtagiri horri dagokionez, Gazteriaren Foru Erakundeak beharrezko izapideak bideratuko ditu hautatuen osasun azterketaren alde aurreko hitzordua jartzeko, eta horiei jakinaraziz.

e) Eskatutako titulazio akademikoaren fotokopia konpultsatua, baita kasu bakoitzean eskatutako titulazio zehatzena ere, baldin badago.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiak zinpeko aitortpena edo hitz ematea aurkeztu beharko dute, adieraziz ez daudela funtzio publikora sartzea eragozten duen diziiplina zehapen edo kondena penal baten mende.

Oinarri honetako aurreko puntuarekin bat etorritik, ziurtagiriak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan beharko dira; baliagarriak izateko informazio hau jaso beharko dute: data, izen abizenak, NANA eta konpultsatzearen arduradunaren sinadura irakurgarria.

Agiri horiek aurkeztu ezina behar bezala justifikatuz gero, izangaiak zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango du betetzen dituela eskatzen diren baldintzak.

Adierazitako epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiak eskatzen diren agiriak aurkezten ez baditu, edo, agiriak aztertu eta gero, eskatutako betekizunen bat ez duela betetzen ikusten bada, ezin izango zaio kontratua egin eta izangai horren gaineko jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, eta gezurra esateagatik erantzukizuna ere eskatu ahal izango zaio. Kasu honetan, erakunde eskudunak puntuazioaren arabera hurrengo hautagaia kontratatzeko proposamena egingo du, betiere hautagaiak probaldiari dagokion aldia baino lehen lan kontratu finkodun araubidean kontratatzeko betekizunak betetzen baditu.

9. Izendapena

Behin aurreko apartatuak aipatzen duen dokumentazioa aurkezteko epea bukatuta, Gazteriaren Foru Erakundearen Idazkaritza Teknikoak txosten bat egingo du azaltzeko proposaturiko pertsonak egokiak diren ala ez, eta ondoren, Administrazio Kontseiluko lehendakariak izendapen ebazpena emango du eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonen aldeko izendapenari buruzkoa, non lanpostuaz jabetzeko dataz gain kasuan kasu probaldia noiz izango den adieraziko baita.

10. Probaldia

Kontratatutako izangaiak Langileen Estatutuko 14. artikuluan ezarritako gehieneko probaldia gainditu beharko du, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 23koak, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak emandako bertsio berriaren arabera.

Praktika aldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da. Horretarako, Gazteriaren Foru Erakundeak idazkaritza teknikoak txosten bat egingo du aldi hori bukatu baino lehen, eta bertan honako aldagai hauek aztertuko dira:

- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokaerak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta egokitzea.
- Elkarlanerako jokaerak.
- Herritarrekiko eta lankideekiko harremanak.

Txosten horren ondorioz, Gazteriaren Foru Erakundeak zuzendaritza gerentziak ebazpena emango du. Izangai bakoitzaren probaldia gainditu den ala ez zehaztuko da.

11. Gorabeherak

Kalifikazio epaimahaiak ahalmena du sortutako zalantzak argitzeko, bai eta lehiaketa oposizioaren garapen egokirako behar dena erabakitzeke, betiere oinarri hauetan zein legeri osagarrian ezartzen ez diren alderdiei dagokienez.

12. Aurkaratzeak

Oinarri hauek, deialdia bera eta horietatik zein auzitegien jardunetik datozen administrazio egintza guztiak urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, eta uztailaren 13ko 29/1988 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, araututako epe eta eretan aurkatu ahal izango dira.

13. Aldi baterako enplegu poltsak

Deialdiak ebatzi ondoren, Administrazio Kontseiluko Lehendakariak dagokion lan-poltsa eratuko duen Ebazpena emango du. Lan-poltsa oposizioko ariketak gainditu dituzten eta deitutako plaza-kopurua gainditzeko izangaiak osatuko dute. Lanpostu horiek aldi baterako langile-beharrak betetzeko erabiliko dira, eta Gazteriaren Foru Erakundearen Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Lan-poltsa horietan sartuko dira, halaber, dagokion hautaketa-prozesuan parte hartu eta gainditu ez arren oposizioko lehen ariketa gainditu duten hautagaiak. Kasu horretan, poltsan lortutako puntuazioa lehenengo ariketan lortutakoa izango da.

Hautaketa-prozesuan emandako datuak Arabako Foru Aldundiko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari eta hala eskatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei laga dakizkieke. Datu pertsonalak lagatzea nahi duten hautagaiak berriaz onartu beharko dute.

14. Azken arauak

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, hautaprobak lege-arau hauetan ezarritakoaren arabera egingo dira:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegu publikoaren oinarritzko estatutuaren testu bateratua.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, euskal funtzio publikoarena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, funtzio publikoa eraberritzeko neurriena.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenarena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudia (EB).
- Langileak Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Toki araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki administrazioiko funtzionarioak hautatzeko prozeduraren gutxieneko arauari eta programei buruzkoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua.
- 63/2018 Foru Dekretua, abenduaren 18ko Foru Gobernu Kontseiluarena. Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzea seigarren plangintzaldirako (2018-2022).
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailletara egokitzen dituena.
- 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzetik salbuestearena.
- 2271/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, arautzen duena ezinduen enplegu publikorako sarrera eta haien lanpostuen hornidura.
- 1822/2006 PRE Agindua, ekainaren 9koa, irizpide orokorrak ezartzen dituena ezinduen enplegu publikora sartzeko hautaprobak denbora gehigarrien bidez egokitzeko.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua.

II. ERANSKINA

Oinarri espezifikoak

Deitutako plazak

ARLOA	LANPOSTUA	UNITATEA	LANPOSTUAREN KODEA	K. E.	D. E.	T. T.	H. E.	D. D.
1 Zerbitzu Orokorrak	Gazteria Teknikaria	40	020304	L	0	A2	3	2017/12/31
2 Egoitzak	Uretako Kirol Jardueretan Espezialista	30.4000 Zuhatzako aterpetxea	161155	D	0	C1	2	1994/12/31
	Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista	30.10000 Barriako aterpetxea	111222	D	0	C2	1	2021/12/31
	Mantenimenduko Ofiziala	30.4000 Zuhatzako aterpetxea	090335	D	0	C1	2	2017/12/31
		30.20000 Espejoko Aterpetxea	090226	L	0	C1	2	

Laburdurak

K. E: Kontratazio Erregimena:

- L: Lan-kontratu Finkoa.
- D: Aldizkako lan-kontratu finkoa.

D. E: Dedikazio Erregimena:

- E: Erabatekoa.
- O: Ohikoa.

T. T: Titulazio Taldea.

H. E: Hizkuntza Eskakizuna.

D. D: Derrigortasun Data.

Arloa: 1 Zerbitzu orokorrak

IZENA	LANPOSTUAREN KODEA	PLAZAK	KE	DE	TT	HE	P
Gazteria teknikaria	020304	1	L	N	A2	3	2017/12/31

1. Sarbide betekizunak

Oinarri orokorretan ezarritakoez gain, unibertsitateko gradu, diplomatura titulu edo parekidea eduki beharko da, A2 taldean kokatutako plazak garatzeko gaikuntza ematen duena, edo lortzeko eskubideak ordainduta izan beharko dira.

2. Betekizun espezifikoak

Haur eta gazte aisialdiko zuzendaritza titulazioa edo parekidea.

3. Lanpostuaren funtzioak

- Gazteriaren Foru Erakundeak abiarazitako jarduerak planifikatzea, teknikoki kudeatzea, jarraipena eta ebaluazioa egitea, gazteriari zuzendutako aisialdi, kultura eta denbora libreko programei dagokienez.

- Toki erakunde elkarten eta lankidetzak arloan gazte jarduerak garatzeko laguntza eta diru-laguntza programak abiaraztea.

- Arabako gazte informazio eta dokumentazioko lurralde zentroko funtzionamendua berrikustea.
- Gazte talde eta elkarteei gai propioen inguruan aholkatzea.
- Aterpetxeen erreserbak kudeatzea, aterpetxeen zuzendariekin batera.
- Txosten teknikoak egitea gazte, aisialdi eta elkartegintza arloan.
- Gazteriaren Foru Erakundeak erabilitako tresnak planifikatzea, eguneratzea eta jarraipena egitea, jarduerak sustatzeko eta herritarrak informaziora sarbidea izatea bultzatzeko (webgunea, informazio orriak, etab.).
- Lanpostuaren betekizunen barruko beste edozein, Zuzendaritzak aginduta.

4. Hautaketa prozesua

4.1. Oposizio fasea.

Fase honetan bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta kanporaketak.

– Lehenengo ariketa:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, lanpostuari lotutako edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Ariketa honi zero (0) eta berrogei (40) puntu arteko puntuazioa emango zaio, eta hogei (20) puntuko kalifikazioa lortzen ez dutenak kanporatu egingo dira. Ez da zigorrik jarriko erantzun okerrak emateagatik.

– Bigarren ariketa:

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, lanpostuaren funtzioarekin eta gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa egin bitartean epaimahaiak zehaztuko dituen material teknikoak baino ezingo dituzte erabili izangaiek, ariketaren eduki eta izaerari erreparatuz.

Bigarren ariketari zero (0) eta hirurogei (60) puntu arteko puntuazioa emango zaio, eta hogeita hamar (30) puntuko kalifikazioa lortzen ez dutenak kanporatu egingo dira. Ez da zigorrik jarriko erantzun okerrak emateagatik.

Ariketa hau kalifikatzeko kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

4.2. Euskara azterketa.

Euskara azterketan, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da plazari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez (3. HE).

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenek edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenek euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan: Gazteriaren Foru Erakunde. Joaquín José Landazuri kalea 3, behea, 01008 Gasteiz, Oinarri Orokorretan 7.3.2 atalean ezarritakoarekin bat etorritz.

4.3. Lehiaketa fasea.

Lehiaketa fasean oposizio fasea gaingitu duten izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta merezimenduen baremoarekin bat etorritz bakoitzari dagozkion puntuak emanez egingo da:

4.3.1. Esperientzia.

– Funtzionario edo aldi baterako langile edo langile finko gisa administrazio publikoan emandako zerbitzuak, administrazio publikoek kontratatuta, deitutako plazarako oinarri hauetan zehaztutako pareko funtziodun plazetan eta, nolanahi ere, plaza bakoitzerako eskatutako betekizun eta titulazio ziurtagiriak izanik, gehienez 40 puntu, 0,60 puntu hilabete osatu bakoitzeko.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioiko aurretiazko zerbitzuen aitortpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

4.3.2. Informatika ezagutza.

Gehienez ere 5 puntutaraino ITXartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

- * Microsoft Word 2010 testu prozesadorea, maila aurreratuenan 2 puntu.
- * Microsoft Excel 2010 kalkulu orria, maila aurreratuenan, 2 puntu.
- * Internet, maila aurreratuenan, puntu bat.

Kasu guztietan European Software Institute (ESI) erakundeak garatutako informazioaren oinarriko gaitasunen ziurtagiriari dagokion ITXartelaren Sistemaren definitutako parametroetan neurtuko da.

Arloa: 2. Egoitzak. Unitatea: 30.4000. Zuhatzako aterpetxea

IZENA	LANPOSTUAREN KODEA	PLAZAK	KE	DE	TT	HE	P
Ur kirol jardueren espezialista	161155	1	D	N	C1	2	1994/12/31

1. Sarbide betekizunak

Oinarri orokorretan ezarritakoez gain, batxilergo titulua, lanbide heziketako gradu teknikari titulua edo parekidea eduki beharko da (EDU/1603/2009 Agindua, ekainaren 10ekoa), edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izan beharko dira.

2. Betekizun espezifikokoak

Honako hauek ere eduki beharko dira:

– Bela (935/2010 Errege Dekretura egokituta, uztailaren 23koa), piragua (981/2015 Errege Dekretura egokituta, urriaren 30ekoa) espezialitateen entrenatzaileen I. mailari dagokion titulazioa (edo parekidea) edo arrauna.

– Oinarrizko nabigazioko patroizko titulua edo parekidea. Titulu hau, bestalde, oposizio faseko bigarren probaren eguna baino lehenago egiaztatu behar da.

3. Lanpostuaren funtzioak

- Egunero erabiltzeko kirol materiala prestatzea: (bela, windsurfa, piragua, arrauna, etab.)
- Eskolak emateko material pertsonala prestatzea, eskolen antolaketarekin bat etorritik.
- Erabiltzaile taldeei eskola teorikoak eta praktikoak ematea.
- Kirol materiala biltzea, garbitzea, mantentze lanak egitea eta konpontzea.
- Aterpetxeko erabiltzaileei harrera egitea, ontzira arte bideratzea eta bertan lekua eskaintzea.
- Aterpetxeko mantentze lan txikiak.
- Aterpetxeko zerbitzuetan laguntza orokorren lan osagarriak.
- Lanpostuaren betekizunen barruko beste edozein, Zuzendaritzak aginduta.

4. Hautaketa prozesua

4.1. Oposizio fasea.

Fase honetan bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta kanporaketak.

Azterketak.

– Lehenengo ariketa:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, lanpostuari lotutako eduki komun eta espezifikoen inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderak osatuko dute galdetegia.

Ariketa honi zero (0) eta berrogei (40) puntu arteko puntuazioa emango zaio, eta hogeiei (20) puntuko kalifikazioa lortzen ez dutenak kanporatu egingo dira. Ez da zigorrik jarriko erantzun okerrak emategatik.

– Bigarren ariketa:

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, epaimahaiak zehaztutako gehieneko epean, lanpostuaren eginkizunekin eta izangaiek egiaztatutako espezialitateari dagokion gai-zerrendaren zatiarekin lotuta. Probaren helburua espezialitate horrekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak egiaztatzea izango da. Espezialitate bat baino gehiago egiaztatzen bada, proba egin baino lehen, izangaiei eskatuko zaie adieraz dezatela zein espezialitate aukeratzeko duten. Bigarren proba horretan, ontzi motordunak maneiatzeko ariketa praktiko bat egingo da, espezialitateetako gai-zerrenda komunarekin lotuta.

Ariketa egin bitartean epaimahaiak zehaztuko dituen material teknikoak baino ezingo dituzte erabili izangaiek, ariketaren eduki eta izaerari erreparatuz.

Bigarren ariketari zero (0) eta hirurogei (60) puntu arteko puntuazioa emango zaio, eta hogeita hamar (30) puntuko kalifikazioa lortzen ez dutenak kanporatu egingo dira. Ez da zigorrik jarriko erantzun okerrak emategatik.

Ariketa hau kalifikatzeko kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna proba egiterakoan.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

Izangaiek, azterketa praktikoetara aurkezte hutsarekin, haien integritate fisikoaren gaineko erantzukizuna hartuko dute haien gain erabaki pertsonalei dagokionez; erakunde autonomoa eta epaimahai kalifikatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango probak egiterakoan sor daitekeen edozein lesiori dagokionez.

4.2. Euskara azterketa.

Euskara proban, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da plazari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez (2. HE).

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenez edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenez euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan: Gazteriaren Foru Erakunde. Joaquín José Landazuri kalea 3, behea, 01008 Gasteiz, Oinarri Orokorretan 7.3.2 atalean ezarritakoarekin bat etorriz.

4.3. Lehiaketa fasea.

Lehiaketa fasean oposizio fasea gainditu duten izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta merezimenduen baremoarekin bat etorriz bakoitzari dagokion puntuak emanez egingo da:

Esperientzia.

– Funtzionario edo aldi baterako langile edo langile finko gisa administrazio publikoan emandako zerbitzuak, administrazio publikoek kontratatuta, deitutako plazarako oinarri hauetan zehaztutako pareko funtziodun plazetan eta, nolana ere, plaza bakoitzerako eskatutako betekizun eta titulazio ziurtagiriak izanik, gehienez 45 puntu, 0,60 puntu hilabete osatu bakoitzeko.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioari aurretiako zerbitzuen aitortzea, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

Arloa: 2. Egoitzak. Unitatea: 30.1000. Barriako aterpetxea

IZENA	LANPOSTUAREN KODEA	PLAZAK	KE	DE	TT	HE	P
Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista	111222	1	D	N	C2	1	2021/12/31

1. Lehiatzeko betekizunak

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, eskola graduatua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

2. Lanpostuaren eginkizunak

- Zentroko instalazioak, bai barrukoak bai kanpokoak, garbitu eta mantentzen laguntzea.
- Aterpetxeko gela guztiak egunero garbitzea.
- Lastairen azalak eta beste gauza batzuk garbitu eta lisatzea.
- Kanpoaldea erraztatzea eta paperontziak garbitzea.
- Arreta ematea jantokian.
- Jantokia egunero garbitzea.
- Lanpostuaren betekizunen barruko beste edozein, Zuzendaritzak aginduta.

3. Hautaketa prozesua

3.1. Oposizio fasea.

Fase honetan bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta kanporaketak.

- Lehenengo ariketa:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, lanpostuari lotutako edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Ariketa honi zero (0) eta berrogei (40) puntu arteko puntuazioa emango zaio, eta hogeita hamar (20) puntuko kalifikazioa lortzen ez dutenak kanporatu egingo dira. Ez da zigorrik jarriko erantzun okerrak emateagatik.

- Bigarren ariketa:

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, lanpostuaren funtzioarekin eta gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa egin bitartean epaimahaiak zehaztuko dituen material teknikoak baino ezingo dituzte erabili izangaiek, ariketaren eduki eta izaerari erreparatuz.

Bigarren ariketari zero (0) eta hirurogei (60) puntu arteko puntuazioa emango zaio, eta hogeita hamar (30) puntuko kalifikazioa lortzen ez dutenak kanporatu egingo dira. Ez da zigorrik jarriko erantzun okerrak emateagatik.

Ariketa hau kalifikatzeko kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

3.2. Euskara azterketa.

Euskara azterketan, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenez edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenez euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan: Gazteriaren Foru Erakundea. Joaquín José Landazuri kalea 3, behea, 01008 Gasteiz, Oinarri Orokorretan 7.3.2 atalean ezarritakoarekin bat etorriz.

3.3. Lehiaketa fasea.

Lehiaketa fasean oposizio fasea gainditu duten izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta merezimenduen baremoarekin bat etorriz bakoitzari dagozkion puntuak emanez egingo da:

Esperientzia.

– Funtzionario edo aldi baterako langile edo langile finko gisa administrazio publikoan emandako zerbitzuak, administrazio publikoek kontratatuta, deitutako plazarako oinarri hauetan zehaztutako pareko funtziodun plazetan eta, nolana ere, plaza bakoitzerako eskatutako betekizun eta titulazio ziurtagiriak izanik, gehienez 45 puntu, 0,60 puntu hilabete osatu bakoitzeko.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioa aurretiazko zerbitzuen aitortzea, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

Arloa: 2. Egoitzak. Unitatea: 30.2000. Espejoko aterpetxea

IZENA	LANPOSTUAREN KODEA	PLAZAK	KE	DE	TT	HE	P
Mantenimenduko ofiziala	090226	1	D	N	C1	2	

Arloa: 2. Egoitzak. Unitatea: 30.4000. Zuhatzako aterpetxea

IZENA	LANPOSTUAREN KODEA	PLAZAK	KE	DE	TT	HE	P
Mantenimenduko ofiziala	090335	1	D	N	C1	2	2017/12/31

1. Lehiatzeko betekizunak

Oinarri orokorretan ezarritakoez gain, goi-mailako lanbide-heziketako titulua eduki beharko da (metala, elektrizitatea, elektronika adarra), edo titulua emateko eskubideak ordainduta izan beharko dira.

2. Eskakizun espezifikokoak

B gidabaimena ere eduki beharko da.

3. Lanpostuaren eginkizunak

- Eraikinean elektrizitate-lanak egitea
- Iturgintzako konponketak eta mantentze-lanak.
- Aterpetzeko altzariak eta gainerako elementuak konpontzea eta mantentzea.
- Ibilgailuen mantentze-lanen arduraduna.
- Lorezaintza eta berdeguneak zaintzea eta mantentzea.
- Instalazioa muntatzen eta desmuntatzen laguntzea.
- Igeltserotzako konponketa txikiak egitea.
- Aterpetzeko kristalak, leihoak eta gainerako elementuak jartzea.
- Propanoa, gasolina, pintura eta bernizak garraiatzea, biltegitratzea eta manipulatzeko.
- Erosketak egiteko joan-etorriak, enkarguak, etab.
- Lanpostuaren betekizunen barruko beste edozein, Zuzendaritzak aginduta.

4. Hautaketa prozesua

4.1. Oposizio fasea.

Fase honetan bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta kanporaketak.

- Lehenengo ariketa:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, lanpostuari lotutako edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Ariketa honi zero (0) eta berrogei (40) puntu arteko puntuazioa emango zaio, eta hogeit hamar (20) puntuko kalifikazioa lortzen ez dutenak kanporatu egingo dira. Ez da zigorrik jarriko erantzun okerrak emateagatik.

- Bigarren ariketa:

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, lanpostuaren funtzioarekin eta gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa egin bitartean epaimahaiak zehaztuko dituen material teknikoak baino ezingo dituzte erabili izangaiek, ariketaren eduki eta izaerari erreparatuz.

Bigarren ariketari zero (0) eta hirurogei (60) puntu arteko puntuazioa emango zaio, eta hogeit hamar (30) puntuko kalifikazioa lortzen ez dutenak kanporatu egingo dira. Ez da zigorrik jarriko erantzun okerrak emateagatik.

Ariketa hau kalifikatzeko kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

4.2. Euskara azterketa.

Euskara azterketan, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenez edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenez euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan: Gazteriaren Foru Erakunde. Joaquín José Landazuri kalea 3, behea, 01008 Gasteiz, Oinarri Orokorretan 7.3.2 atalean ezarritakoarekin bat etorritik.

090226 lanposturako, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatzea honela baloratuko da:

- 1. hizkuntza-eskakizuna : 10,00 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 14,50 puntu.

4.3. Lehiaketa fasea.

Lehiaketa fasean oposizio fasea gainditu duten izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta merezimenduen baremoarekin bat etorri bakoitzari dagozkion puntuak emanez egingo da:

Esperientzia.

– Funtzionario edo aldi baterako langile edo langile finko gisa administrazio publikoan emandako zerbitzuak, administrazio publikoek kontratatuta, deitutako plazarako oinarri hauetan zehaztutako pareko funtziodun plazetan eta, nolana ere, plaza bakoitzerako eskatutako betekizun eta titulazio ziurtagiriak izanik, gehienez 45 puntu, 0,60 puntu hilabete osatu bakoitzeko.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioko aurretiazko zerbitzuen aitortpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

III. ERANSKINA - Gaiak

Lanpostua	Gazteria Teknikaria
-----------	---------------------

Zati komuna

1. gaia. Espainiako Konstituzioa. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak. 10-55 artikulua.
2. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Atariko titulua (1-9 artikulua), Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak (10-12 artikulua), II. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoko botereak. (24tik 39.era bitarteko artikulua).
3. gaia. 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren erakunde-antolamenduari buruzkoa (1-33. artikulua). ALHAO, 28, 1983ko martxoaren 8a. Testu bateratua.
4. gaia. Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua. Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa. ALHAO, 9, 1993ko urtarrilaren 25ekoa.
5. gaia. Gazteriaren Foru Erakundea. 26/2010 Foru Dekretua, ekainaren 8koa, Diputatuen Kontseiluarena, Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduen Erregelamendua aldatzen duena.
6. gaia. 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duena. VII. kapituluak. Emakumeen aurkako indarkeria matxista. EHAA, 74. zk., 2022ko apirilaren 13koa. Agindua, 2022ko martxoaren 17koa.
7. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatuen Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Langile-motak (8. artikulutik 13. artikulura). Enplegatuen publikoaren eskubideak eta betebeharrak, enplegatuen publikoaren jokabide-kodea (14. 54. artikulua). Zerbitzu-harremana eskuratu eta galtzea (55-68 artikulua).
8. gaia. Administrazio-prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidea. Xedapenak Orokorrak (1. artikulutik 2. artikulura). Prozeduran interesdun direnak (3-12 artikulua). Jarduteko arau orokorrak (13. 28. artikulua). Epe-mugak eta epeak (29. artikulutik 33. artikulura).

9. gaia. Administrazio-prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Egintzen betekizunak (34. artikulutik 36. artikulura). Egintzen eraginkortasuna (37. artikulutik 46. artikulura). Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (47-52 artikulua).

10. gaia. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. Legearen xedea eta aplikazio-eremua (1. artikulutik 3.era). Kontratu motak (12-18 artikulua). Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak (24. artikulutik 27.era).

11. gaia. Datuen babesa. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa. Xedapen orokorrak (1. artikulutik 3.era). Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB) 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa: printzipioak (5. artikulua). Interesdunaren eskubideak (12. artikulua).

12. gaia. Indarrean dagoen Gazteriaren Foru Erakundearen hitzarmen kolektiboa. ALHAO, 2018ko martxoaren 5a. III. kapituluak. Lanaldia, lan-egutegia, gaueko lana; asteko atsedena; oporrak; baimenak eta lizentziak. 30.etik 65.era bitarteko artikulua.

Zati espezifikoa

13. gaia. Arabako Administrazio dibisioa. Foru izendegia: biztanleguneak, udalerrriak, koadriak eta zerbitzuen ermandadeak.

<https://www.araba.eus/elva/Inicio/ELVA5000Bienven.asp>.

<https://www.araba.eus/elva/Inicio/ELVA5000Bienven.asp? Idi = e>.

14. gaia. Gazteen Euskal Legea. 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteei buruzkoa. Atariko eta 1. tituluak (1etik 11rako artikulua).

15. gaia. Gazteriaren Foru Erakundeko aterpetxeen zerbitzu-karta. Webgunea: gazteria.araba.eus.

16. gaia. Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzu-karta. Webgunea: gazteria.araba.eus.

17. gaia. Gazteen partaidetzarako egiturak. Gazteria Kontseiluak eta gazteen parte-hartzea maila autonomikoan eta tokikoan. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK). Definizioa eta funtzioak. Organoak. 1. eta 2. kapituluak. 6/1986 Legea, maiatzaren 27koa (EHAA, 113. zk., 1986ko ekainaren 11koa).

18. gaia. Gazteen partaidetzarako egiturak. Arabako Gazteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua. I., II. eta III. kapituluak. Definizioa, helburuak, eginkizunak, egitura, antolaketa eta gobernu-organoak. 2018ko abuztuaren 3ko ALHAO, 89 zk. 36/2018 Foru Dekretua, uztailaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Arabako Gazteen Partaidetzarako Lurralde Kontseiluaren sorrera eta haren funtzionamendua arautzen duen erregelamendua onartzea.

19. gaia. Gazteen asoziazionismoa eta boluntariotza. Xedapen orokorrak, araubide juridikoa, elkarteen eraketa, inskripzioa eta erantzukizuna, barne-antolaketa eta -funtzionamendua, estatutu-araubidea. 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa. I-XI. kapituluak.

20. gaia. Gazteen asoziazionismoa eta boluntariotza. 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntariotzaren Euskal Legea. I. kapituluak. Boluntarioak (5. artikulutik 7.era). EHAA, 130. zk., uztailaren 13koa.

21. gaia. Gazteen elkartegintza eta boluntariotza, irailaren 1eko 169/2000 Dekretua, Boluntariotza Erakundearen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituena. 2000ko irailaren 29ko EHAA, 188. zk.

22. gaia. Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokorrak. 57/2021 Foru Dekretua (ALHAO, 2, 2022ko urtarrilaren 5a).

23. gaia. 2021/2022 ikasturtean unibertsitate-ikasketak egin dituzten eta beren bizilekua ez den beste udalerrri batera joan behar duten ikasle gazteei diru-laguntzak emateko deialdia. ALHAO, 2022ko maiatzaren 27koa.

24. gaia. 2021/2022 ikasturtean batxilergoko ikasketak eta erdi- edo goi-mailako heziketa-zikloak egin dituzten eta beren bizilekua ez den beste udalerrri batera joan behar izan duten ikasle gazteei diru-laguntzak emateko deialdia. ALHAO, 2022ko maiatzaren 27koa.

25. gaia. Diru-laguntzak. Kanpamentu, kolonia, martxa ibiltari eta auzolandegietarako deialdia 2022 ALHAO 50, 2022ko maiatzaren 2koa.

26. gaia. Diru-laguntzak. Haur eta Gazteen Aisialdian Prestatzeko Eskolentzako diru-laguntzen deialdia 2022. ALHAO, 24, 2022ko otsailaren 25a.

27. gaia. Diru-laguntzak. Astialdian dauden gazteentzako urteko jardueren programetarako diru-laguntzen 2022rako deialdia. ALHAO 2, 2022ko urtarrilaren 14koa.

28. gaia. Diru-laguntzak. Gazteentzako jarduerak egiten dituzten toki-erakundeentzako diru-laguntzen 2021erako deialdia. ALHAO, 67. zk., 2021eko ekainaren 18koa.

29. gaia. Planak. Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana 2020. Erronka nagusiak gazteentzat. 34. orrialdea.

https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/noticia/4_gazte_plana/es_def/adjuntos/ej_iv_gazte_plana_c.pdf.

30. gaia. Planak. Gasteizko Udalaren Gazte Plana. 2020-2021. Erronka: gazteak.

07. atala. Lan-lehentasunak eremu bakoitzean.

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/05/91/90591.pdf>.

31. gaia. Gazteen Euskal Behatokia. Agindua, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteen Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehazten dituen. EHAA 1999/12/23.

32. gaia. Gazteriaren arloko Europako programak. Erasmus + Gazteria: informazio orokorra, zer den, helburuak, nork parte har dezakeen, egitura, helburuak, lehentasunak eta ezaugarri garrantzitsuak, etab.

<https://www.gazteukera.euskadi.eus/programamas-de-la-union-europea/erasmus-plus/-/que-es-acciones-y-plazos/>. <http://www.injuve.es/sites/default/files/adjuntos/2021/04/2021-erasmusplus-ideme-gu>.

33. gaia. Gazteentzako informazioa. 211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazte Informazio Zerbitzuen aintzatespen ofiziala arautzen duena. 1993ko irailaren 7ko EHAA.

34. gaia. Gazteentzako informazioa. 14/1988 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskadiko Gazte Informazio eta Dokumentaziorako Zentro Koordinatzailea sortzen duena. 1988ko otsailaren 6ko EHAA, 25. zk.

35. gaia. Gazteentzako informazioa. ERYICA Gazte Informaziorako Europako Gutuna, 2004ko azaroaren 19koa

<http://www.injuve.es/sites/default/files/Carta%20Europea%20de%20la%20Informacion%20Juvenil.pdf>.

36. gaia. Prestakuntza. 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza-jardueretako begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak ofizialki aitortzea eta horietan parte hartzea arautzen duena.

37. gaia. Prestakuntza. Agindua, 2016ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinaren bidez eguneratzen baitira haur eta gazteen aisialdiko hezitzaileentzako prestakuntza-eskolen eta haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begirale eta zuzendarietako prestakuntza-ikastaroen aintzatespen ofiziala eta horietarako sarbidea arautzen dituen Dekretuaren I. eta II. eranskinak. 2016ko azaroaren 17ko EHAA, 128. zk.

38. gaia. Prestakuntza. Dinamizatzaile soziokulturalen prestakuntza. Xedea. Ikastaroen antolamendu-alderdiak, prestakuntza-etapak. 1998ko ekainaren 12ko Agindua. 1998ko ekainaren 29ko EHAA, 120 zk.

39. gaia. Gazteentzako aterpetxeak. Aterpearen kontzeptua. Foru-eskumenak. Aitortzeko baldintzak. Erregistro bateratua. 406/1994 Dekretua, urriaren 18koa. 1994ko urriaren 26ko EHAA, 204. zk.

40. gaia. Gazteentzako aterpetxeak. Agindua, 1997ko azaroaren 12koa, Kultura sailburuarena, haur eta gazte taldeen egonaldi eta egonaldietarako aterpetxe eta instalazioen antolamenduari buruzko urriaren 18ko 406/1994 Dekretua garatzen duena. 1997ko azaroaren 25eko EHAA.

41. gaia. Gazteentzako aterpetxeak. 67/2010 Foru Dekretua, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena, Gazteriaren Foru Erakundeko aterpetxeetan ematen diren zerbitzu eta jarduerengatikiko prezio publikoak arautzen dituen araudia onartzen duena.

42. gaia. Arabako gazte-aterpetxeak. Hiru aterpetxe foralen instalazioak eta ezaugarri espezifikoak. www.gazteria.araba.eus.

43. gaia. Udalekuak eta kanpalekuak. 170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa, haurren eta gazteen kanpamenduen, kolonien, kolonia irekien, auzolandegien eta ibilaldien erregimena arautzen duena. 1985eko ekainaren 29ko EHAA, 134. zk.

44. gaia. Udako programak. 14/2022 Foru Dekretua, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako udako programei aplikatu beharreko araudia eta prezio publikoak onartzea. ALHAO, 44, 2022ko apirilaren 13a.

45. gaia. Eskola-programak. Ikasgelak-Gelak, Arabaz blai, This is not an english class, Arnastu eta Eco School.

http://www.araba.eus/cs/Satellite/Juventud/es_ES/inicio/otros-colectivos/programas-escolares

46. gaia. Eskola-programak. 15/2022 Foru Dekretua, apirilaren 5ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako eskola-programei aplikatu beharreko prezio publikoen eguneratzea onartzea. ALHAO, 44. zk., 2022ko abenduaren 13koa.

47. gaia. Gazteriaren Foru Erakundearen programak. Gazteriaren Foru Erakundeak garatutako programak kudeatzeko araudia. 89/2022 Ebazpena. ALHAO 49, 2022ko apirilaren 29a.

48. gaia. Prestakuntza eta sentsibilizazioa. Hitz-kolpez hitz-kolpez. Prestakuntza eta sentsibilizazioa genero-indarkeriari lotutako gaietan. <https://agolpedepalabra.com/>.

49. gaia. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa. II. Titulua. Haurren eta nerabeen eskubideak eta eskubide horien erabilera. 2011ko azaroaren 14ko EAO, 274. zk.

50. gaia. Gazteen parte-hartzea. Gazteek parte hartzeko tresnak.

51. gaia. Aisialdiko jarduerak euskaraz egiteko gida. Guía de educación para las actividades infantiles y jóvenes. Lehenengo atala: oinarritzko irizpideak <https://bit.ly/39WjqDL>.

52. gaia. Itxaronaldian gazteen prekarietateari eta hiperaktibitateari buruzko esperientziak eta metaforak. Ondorioak. Benjamin Tejerina.

<https://recyt.fecyt.es/index.php/res/article/view/74632/63154>.

53. gaia. Denbora likidoak. Ziurgabetasuneko garai batean bizitzea. Zygmunt Bauman.

54. gaia. Ebaluazioa: faseak, motak eta teknikak. Zer da ebaluazio-matrize bat?

55. gaia. Arriskuaren eta nerabeen eta gazteen aisiaren arteko lotura. Arriskuaren kontzeptua. Arriskuaren inguruko teoria desberdinak.

56. gaia. Talde-lana. Lidergo-estiloak. Pertsonetikiko komunikazioa eta lan-estiloak. Erabakiak hartzea.

57. gaia. Aisialdiko hezkuntza-proiektuen plangintza, antolaketa, kudeaketa eta ebaluazioa.

58. gaia. Aisialdiko begirale taldea koordinatu eta dinamizatzea.

59. gaia. Genero-ikuspegia duten proiektuen kudeaketa.

60. gaia. COVID-19ren eragina Gasteizko gazteen artean. Analisi multidimentsionala

<https://gazteria.araba.eus/documents/4151551/7009528/Impacto+de+la+pandema+en+la+juventud.pdf/097b192a-3c2e-3d67-ac83-ac1f4ea1f730?t=1644404220023>.

Lanpostua	Uretako kirol jardueren espezialista
-----------	--------------------------------------

Gai komunak

1. gaia. Espainiako Konstituzioa. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).

2. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua. Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak (10-12 artikulua). II. Titulua: Euskal Autonomia Erkidegoko aginteak (24-39 artikulua).

3. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa. 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko erakunde antolamendua (1 – 33 artikulua).

4. gaia. Gazteriaren Foru Erakundea: 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoa. Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 8ko 26/2010 Foru Dekretua; horren bitartez aldatu zen Gazteriaren Foru erakundearen organismo autonomoaren egitura eta funtzionamendua.

5. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak (8 – 13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Enplegatu publikoen jokabide kodea (14 – 54 artikulua). Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55 – 68 artikulua).

